

Memoria gorde,
oraina bizi,
etorkizuna eraiki,
izan Kronikalari!



■ HERNANI
MENDIRIZ MENDI

Igandeko irteeran, izenematea gaur edo ostegunean

GR-11 ibilbidearekin jarraituz, bosgarren etapa osatuko du Mendiriz Mendik, igande honetarako antolatuta duen irteeran. Burguetetik Hiriberrira joango dira, 17 kilometro eginez, 550 metroko gorako desnibelarekin. Bertara joateko, 07:00etan elkartuko dira Atsegindegian, baina beharrezkoa da aurrez apuntatzea: gaur edo ostegunean, 20:00-21:00 orduetartean, elkartaren bulegoan. 13 euro dira bazkideentzat, eta 16 euro gainerakoentzat. Bazkaria, autobusean egingo dute. ■

■ HERNANI TILOS 7 PASA

Fase erabakigarria martxan, gaurtik

Aurreko astean bukatu zuten ligaxka, 66 partiduren ondoren; eta aste honetan hasiko dira, lehenengo mailako final zortzirenak, eta bigarren mailako final hamaseirenak. Gaurtik ostegunera, 13 partidu.

FASE berri batean, erabakigarria, sartuko da gaur Tilos 7 Pasa txapelketa. Izan ere, aurreko astean bukatu zuten ligaxka, 66 partidu jokatu ondoren; eta bikote onenek, kanporaketak hasiko dituzte aste honetan: lehenengo mailakoek, final zortzirenak jokatu di-

tuzte; eta bigarren mailakoek, final hamaseirenak.

Gaurtik ostegunera izango dira partiduak, egunero arratsaldeko 18:00etan hasita, Tilosetan. Lau partidu izango dira gaur, denak bigarren mailakoak; eta hiruna datozen egunetan, bi kategorietakoak. ■



Mota guztietako akrobaziak egin dituzte palstek, ligaxkako partiduetan.

Gaur, astelehena
18:00, Iurramendi-Iurramendi/
Urdiain-Pavon (2. maila)
18:45, Barbulo-Aranjuelo/
Rekondo-Udakiola (2. maila)
19:30, Josu-Alex/
Mancisidor-Ferreiro (2. maila)
20:15, Ansa-Arozena/Loidi-Agirre (2)

Etzi, asteazkena
18:00, Erdozia-Loran/
Joseba-Andutz (2. maila)
18:45, Ruiz-Urdanpilleta/
Iriarte-Gamio (1. maila)
19:30, Aroztegi-Berebide/
Salaberria-Zumeta (1. maila)

Bihar, asteartea
18:00, Inda-Arizmendi/
Begiristain-Arteaga (1. maila)
18:45, Magi-Txema/
Salgado-Arizmendi (2. maila)
19:30, Arregi-Luixa/
Agirre-Mendigain (1. maila)

Etzidamu, osteguna
18:00, Ramos-Zubimendi/
Lujanbio-Lujanbio (1. maila)
18:45, Olazabal-Legarreta/
Izquierdo-Bengoetxea (2. maila)
19:30, Irazustabarrena-Loitegi/
Joxe-Iñaki (2. maila)

■ HERNANI URUMEA HERRIGUNEA

Antiespeziston Topaketak, ostiraletik igandera

NOR talde antiespezistak antolatuta, hitzaldiak, tailerrak, kontzertuak, zinea, jolasak, batzarrak... izango dira, Urumea Herrigunean. Izena eman behar da aurrez, 'info@nor.eus' helbidera idatzita.

HIRU eguneko jardunaldiak antolatuta dituzte aste honetarako, Hernanin, NOR talde antiespezistak eta Urumea Herriguneak. Herrigunean bertan jarri dute zita, Antiespeziston Topaketak egiteko, ostiraletik igandera; maiatzaren 17tik 19ra.

Nabarmendu dute, arrazoi ugari daudela, topaketetan parte hartzeko: «elkar ezagutu

eta saretzeko, ahots ezberdinetatik asko ikasteko, dibertitzeko, eztabaidatzeko, konspiratzeko, elkarbanatzeko... Bertaratzeko arrazoi anitz daude, aukeratu zurea eta apuntatu!».

Egitarau osoa ezagutzeko eta apuntatzeko, emailez

Izan ere, Antiespeziston Topaketetan parte hartzeko, beha-

rezkoa izango da alde zuzenetik izena ematea, email bidez: info@nor.eus helbide elektronikora idatzi behar da.

Eta egitarau osoa ezagutzeko edota informazio gehiago jasotzeko ere, helbide horretara idatzita izango da aukera.

Hala ere, egitaraua zabaldu ez badute ere, aurreratu dute zein ekintza mota izango di-

ren, bi egun horietan: hitzaldiak, elkar ezagutzea, tailerrak, gaubelak, koordinazioa, kontzertuak, batzarrak, mahai inguruak, zinea, jolasak, zaintza, asanbladak, konspirazioa...

Otorduak eta gauak ere, bertan egingo dituzte: «ekarri lo zakua! Jatekoa eta lo egiteko tokia soberan izango da», animatu dituzte herritarrak. ■

■ HERNANI UDALA

Lanak gaur eta bihar, apeaderoko igogailuan

Hobekuntza lanak egingo ditu Udalak, Renfeko apeaderoko igogailuan, irisgarritasuna bermatzeko. Eta ondorioz, igogailua zerbitzuz kanpo egongo da, tarte horretan: gaur 09:00etatik 18:00etara; eta bihar, berriz, 08:00etatik 18:00etara. ■

■ ASTIGARRAGA PRESOK

Kontzentrazioa gaur, Joseba Barandiaranen

Astelehenero bezala, kontzentrazioa egingo dute gaur arratsaldean, Astigarragako preso eta iheslarien senide eta lagunek. Joseba Barandiaran plazan izango da, 20:00etan, Preso eta iheslariak etxera lelopean. ■

■ HERNANI OKERRAK ZUZEN

Trans bertso-saioa igandean, eta ez ostiraletan

Trans zikloa antolatuta du Berdintasun Kontseiluak, aste honetarako. Eta asteazkenean izango da Kattalin Minerren MOIO: Gordetzea ezinezkoa zen liburuaren aurkezpena, 19:30etan Biterin. Baina trans bertso-saioa, igandean izango da, 19:00etan Tilosetan; eta ez ostiraletan, atzoko Kronikak zioen bezala. ■

YABEN ENGLISH SCHOOL
HERNANI
ikastegia

ADIN GUZTIAK:
Trinkoa 4 aste Dataki ekainaren 1etik uztailaren 26ra

CAMBRIDGE-KO AZTERKETEN PRESTAKETA TRINKOAK
FCE*CAE

* MATRIKULA: gure bulegoan Cambridge azterketarako matrikulatzeko azken eguna, ekainaren 10a.

YABEN: Anlekale, 60

2019ko UDA
TRINKOAK

Cambridge ESOL
Exam Preparation Centre

YABEN Kids: Perkalnegi, 13 943 33 17 63

Catalana Occidente
Aseguruak

BAUTISTA
BIURRARENA
ETXEGOIEN

Atzieta 30 - Hernani
943 33 24 40

gse
Asesoreak

Aholkularitza eta
tramitazio
zerbitzua

Gudarien plaza, 13
Telfnoa: 943 55 02 54
Faxa: 943 33 58 01
gse@gseasesores.net



GAUR

Giro eguzkitsua izango dugu, egun osoan zehar. Tarteka goi-laino batzuk agertuko dira, baina zerua urdin egongo da. Tenperatura, dena den, ez da igoko, ipar-ekialdeko haizearekin jarraituko baitugu. Freko egingo du egunaren hasieran. **Min.7° / Max.18°**

BIHAR

Aldaketa gubi biharko. Giro lasaiekin jarraituko dugu, eguzkitsua, eta zerua garbi-garbi agertuko da. Haizea ipar-ekialdetik sartuko da berriro, eta tenperaturak berdintsu mantenduko dira. Egunaren hasiera frekoa izango da, beste behin. **Min.8° / Max.19°**



TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037 - 948 514019 (Goizueta) **UDALTZAINGOAK:** 943 248900 (Hernani) 943 335230 - 699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622 **AUTOBUSAK:** **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korreoa Goizueta-Hernani:** 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **A. Etxebarria** Andre kalea, 48 (Hernani) **943 551793** **Gauetz:** **Aldabe** Perkaitezgi, 8 (Antziola, Hernani) **943 336022** **Goizueta:** Nagusia 64 **948 514353**



■ HERNANI UDALTZAINGOAK

Gizon bat atxilotu zuten larunbat gauean, genero indarkeriagatik

Emakume bat erasotu eta labanaz mehatxatu zuen etxean, eta bertan atxilotu zuten udaltzainek. Ertzaintzaren esku geratu da orain.

GENERO indarkeriagatik, gizon bat atxilotu zuten Hernaniko Udaltzaingoak eta Ertzaintzak, larunbatetik iganderako gauean. Udaltzaingoak jakinarazi duenez, gizonak emakume bat erasotu zuen etxebizitzaren barruan, eta ondoren, labana

batekin mehatxatu zuen. «Udaltzainak etxebizitzara sartu zirenean, emakumea guztiz beldurtuta zegoen, etxebizitzako egongela batean; eta erasotzailea, berriz, ohean sartuta. Ohe inguruan aurkitu zitzaion, emakumea meha-

txatzeko erabili zuen labana», azaldu du Udaltzaingoak. Eraso gertatu zen etxebizitzan bertan atxilotu zuten gizona. Orain, Ertzaintzaren esku geratu dira atxilotua eta labana, ondoren epailearen aurrean jarri ditzaten. ■

■ HERNANI MUSIKA

Aretoa lepo beteta, Olano Fondoaren edukia ezagutzeko

Atzo aurkeztu zuten Jesus Mari Olano Fondoa, berak gorde zuen altxorren zati bat ezagutzera emanez. Eta Joxan Goikoetxeak eta Irati Sarasuak gidatutako saioan, lepo beteta ageri zen udaletxeko areto nagusia. Gustora ikusi eta entzun zuten bertaratuek, atzokoan erakutsi zieten. Hots eta musika grabazioak, gordetako bertsoak, garai bateko irudiak... jarri zituzten, eta zuzeneko musika ere tartekatuz. Hain justu, Juan Luis Perez Petti abeslari nafarrak eta Goikoetxeak eman zioten bukaera ekitaldiari, musikarekin eta kantuan. Aurretik, omenalditxo bat ere egin zioten Olanoren familiari, Jesus Mari zenaren emazteari lore sorta eskainiz. Goikoetxeak nabarmendu zuen, bukatzeko, 10 urtetako lana izan dela altxor hori bildu, eta herri-tarren eskura jartzeko prestatzea. Eta azpimarratu zuen, orain laguntza behar dutela, lan honek segida izan dezan. ■



Lepo beteta ageri zen udaletxeko areto nagusia, Olano Fondoaren aurkezpenean. Gustura ikusi eta entzun zuten, erakutsi zieten.



Musikarekin eta kantuan bukatu zuten ekitaldia, Pettik eta Goikoetxeak.

■ ASTIGARRAGA SAGARDOETXEA

Udaberriaren festa, datorren larunbatean

'Udaberri giroan' jaialdia antolatuta dute, 17:00etan hasita, Sagardoetxeko sagastian.

FESTA berezia egingo dute aurrean, Sagardoetxeko sagastian, udaberriaren. Datorren larunbatean izango da *Udaberri giroan* jaialdia, arratsaldeko 17:00etan hasita, sagarrondoan loraldia ospatzeko.

Horrela, antzerkia, musika eta dantza uztartuko dituen emanaldi batekin hasiko dute festa: *Black & White* ikuskizuna eskainiko dute Astigarragako antzerki eskolako, Astigar dantza taldeko eta Norberto Almandoz musika eskolako ikasleek.

Ondoren, bost musika tal-

deren kontzertuak izango dira: Ttakun, 7'erdik, Kazkabarra, Deblauki eta Eira.

Gainera, bitartean, bitxi-gintza tailerra ere egongo da, loreekin bitxiak egiten ikasteko, Idoia Lizeagaren eskutik. Parte hartzeko, izena eman behar da: 943 55 05 75 edota info@sagardoarenlurraldea.eus. Eta familientzako, beste tailer bat ere izango da, Baratz elkar-tarean eskutik: sagastiko lanak egiteko aukera izango dute.

Festa borobiltzeko, piknika egingo dute, bakoitzak etxetik eramandakoarekin. ■

■ HERNANI LITERATUR SOLASALDIA

Mercé Rodoredaren lanei buruz, bihar

Bihar egingo dute literatur solasaldia, euskeraz, Hernaniko Udal Liburutegian. Mercé Rodoredaren *Ipuin hautatuak* liburuari buruz ariko dira, 19:30etatik aurrera, Ane Mayozen gidatuta. ■

■ ASTIGARRAGA IRAKURKETA KLUBA

'Bizia lo' liburua, biharko saioan

Bihar arratsaldean egingo du maiatzeko saioa, Irakurketa Klubak, 19:30etan liburutegian. Oraingoan, Jokin Muñozen *Bizia lo* liburua irakurriko dute, Joanes Jauregik gidatuta. Doakoa eta irekia da. ■

■ HERNANI GAZTETU HERNANI

Gazte Kontseiluaren bilera, ostegunean

Ostegun honetan deitu du Gaztetu Hernanik, Gazte Kontseiluaren bilera. Arratsaldeko 18:00etan izango da, Biteri kultur etxean; eta bertan, egingo dute orain arteko lanaren balorazioa, eta finkatuko dituzte aurrera begirako erronka berriak. ■

IRAGARKI MERKEAK

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

euskal pintxo potea
Hernaniko tabernetan maiatzaren 13-tik 17-ra

Taberna parte hartzaileak eta pintxoak:

APEADERO: Gaztagardo
ARALAR: Elurra
ARRI: Aha
ATXUR: Txapela
EKOS: Taki-Taki
GARIN: Piolin

euskal sagardoa + idiazabal gazta duen pintxoak **2€**

uztaberri eguna Hernanin
Maiatzaren 18an, 18:00-21:00
Atsegindegin

2018ko Euskal Sagardoaren aurkezpena eta dastatzea.